

‘Berria’: Behar dugunetik nahi genukeenera

JOXE AZURMENDI

IDAZLEA

Egunkari bat ez da posible izatea guztiena. Guztientzat izatea posibleago. Baina, teorian. Guztientzako egunkari bat, seguruen-seguruenik, ez litzateke izango nirea eta ez niretzako. Alegia, ez Haritschelhar Euskaltzaindian, ez Pello Zabala Arantzazun, ez Egibar, ez Jose Ramon Etxebarría, ez Ramon Etxezarreta, etab., lehen *Egunkaria* irakurtzen zuen ia inorentzat ez. Gaur (euskaraz) ezer irakurtzen duen ia inorentzat ez, azkenean.

«Guztientzat» Arantzazuko «takoa» izaten zen, hormako egutegi txikia, beste garai batzuek zirelako haiek.

Gure kultura politikoak baditu tradizio faltaren akats eta problema batzuk. Bat, euskara beti ospitaleko paziente bezala tratatu nahi izatea da: badugu euskaltzaleen tradizio txiki bat, baina euskararen tradizio kulturalik ez, publiko eta autonomoa. Beste bat, aurrekoarekin lotua kasu honetan, tradizio politiko faltagatik edo, erantzukizun publikoaren ulerpen bitxi bat da, barren-barrean autoritarioa izaten jarraitzen duena. Erakunde publikoek euskararen alde ezer egiten ez zuten historiatic, egin beharreko den-dena beren eskuetan eta beren ardurapean hartu behar dutela, etorri gara pentsatzera.

Estatuari ahal diren baliabide guztiak eskuetatik kendu egin behar zaizkio, eta ahal diren gutxienak eman. Sozialistak nahiz liberalak ados izaten ziren puntu

horretan lehenago mundu guztian: Estatua, zenbat gutxiago eta hobe. Diferentziak gero hasten ziren: liberalentzat gizabanakoa behar zen Estatuari buruz indartu eta libre utzi (pentsamendu indibidualista), sozialistentzat komunitate edo elkarteak (pentsamendu sozialista).

XX. mendearen lehen partekoak izan dira, heredatu ditugun garapide autoritarioak, faxismora eta New Deal-era alderdi liberalean, zentralismo demokratiko eta stalinismora sozialismo internazionallean. Politika guztia alderdien sistemara murriztu izateak joera hori bermatu du. «Aita Estatu» autoritarioa, kasi exijentzia bat bilakatu zaigula, ematen du.

Espero dut, denok ez garela estatismoan erori. Euskaltzaleok, bederen. Euskara biziko bada, gizarteak eusten diolako izango da, ez Estatuak edo Jaurlaritzak eusten diolako. Politikoki, limosna ez da gestio arrazoizkoa. Gutxien-gutxiena, proiektu baten limosna, haren beharra erakusten ez zuenari. Estatuak edo Jaurlaritzak hemen egin behar duena, beste arlo askotan bezala, bere buruari laguntzen dakienari laguntzea da. Eta kulturalki, euskara biziko bada (alegia, ez filologoentzat begetatu bakarrik) erabakigarria da bere buruari eusten, garatzen, zabaltzen joango diren proiektu beregainak indartzea gorpuz sozialean. Horrelakoak sortzen eta indartzen lagundu behar da.

Euskarazko egunkariak, aurren-aurren egunkaria izan behar du. Egunkaria izateak automatikoki muga batzuk

ezartzen ditu. Ezin da izan «guztiena». Euskarazkoa denez gero, ahalik eta gehienena izatea, bere helburuetako bat izan beharko luke, baina lehen helburua ez. Izan ere, euskaldun guztientzako egunkari bat nahi duenak, edo ez daki, zer nahi duen, edo ondoegi daki, zer nahi duen: eta nahi duena, ez da egunkari bat, euskaldun guztientzako irakurgai bat nahi izatea asmo guztiz txalogarria izan arren (meza-liburua gutxienek irakurriko luketen garai honetan). Literatura ez da pentsatu behar euskara salbatzeko helburuarekin, eta egunkaria ere ez. Literatura izanez eta egunkaria izanez, lagundu egingo dute gero euskara salbatzen ere.

Proiektu bat, haren beharra dutenekin, hasten da. Euskarazko egunkaria, bada, horren beharra dutenentzat izan bedi, lehen-lehenik. Beharra, hau da, gurari bizia goizero-goizero. Izan bedi halaber, proiektu horretan sinesten dutenek, hori sortzen sakrifikatuzko prest daudenek, egina: kazetari militanteek, ez kuasifuntzionarioek. Bi puntuok oinarritzat harturik, bizi nahi duen eta ahal duen egitasmo bat izanen da, irakurleon laguntzarekin. Euskararen gizartea eta euskararen gizarte irakurlea, bi gauza diferente baitira. Euskararen gizarte irakurletik abiatu behar du egunkariaren proiektuak. Gizarte irakurle gaur txiki horretatik hasi eta, hobetuz, indartuz, zabalduz joan dadin bihar ahalik eta gehienenganantz, itxaropen osoa dut, BERRIAK euskaltzaleen eta euskal erakundeen, udaleen, diputazioen laguntza izango duela, eta Eusko Jaurlaritzarena.